

**DONOSTIAKO TRANBIA KONPAINIA, PSA ENPRESAKO MEKANIKARI-ARGIKETARI BALIOANIZTUNAREN LANPOSTURAKO LAN POLTSA BAT OSATZEKO DEIALDIAN ETA HAUTAKETA PROZESUAN ONARTUA IZATEKO ESKABIDEA**

Eskatzailea:

<b>ABIZENAK ETA IZENA</b>		<b>NAN (letra ere sartu)</b>	
<b>BIZILEKUA</b>	<b>POSTA KODEA</b>	<b>HERRIA</b>	
<b>MUGIKORRA</b>	<b>TELEFONOA</b>	<b>Helbide elektronikoa</b>	

<b>PRESTAKUNTZA</b>
<b>LANBIDE IBILBIDEA (bete atal hau "ERANSKINA: ESPERIENTZIAREN BALIOESPENA" orrian)</b>

Jakinazten dizugu Bederatzigarren Oinarriaren arabera Hautaketa Batzordeak egiaztatu ahal izango duela izangaiek aurkeztutako dokumentazioaren/informazioaren egiazkotasuna Hautaketa Prozesuek irauten duten bitartean, eta prozesu horretatik kanpo utz ditzakeela automatikoki egiazkoa ez den informazioa aurkeztu duten izangaiek.

Inprimaki hau sinatzean:

- (i) Eskatzen dut mekanikari-argiketari balioaniztunaren lanposturako lan-poltsa baten deialdian eta hautaketa-prozesuan onar nazatela, eta aitortzen dut gorago aipatutako datuak egiazkoak direla, baita bigarren oinarrian eskatzen diren baldintzak betetzen ditudala ere; eta
- (ii) Esanbidez adierazten dut irakurri dudala eta esanbidez eta erreserbarik gabe onartzen dudala mekanikari-argiketari balioaniztunaren lanposturako lan-poltsaren deialdia eta Hautaketa Prozesua arautzen dituen eta inprimaki honen atzealdean transkribatuta dagoen Datuen Pribatutasun Politika.

Data: .....

Eskatzailearen sinadura: .....

Ezinbestekoa da hautagaitzari honako dokumentu hauek eranstea (ikus LAUGARREN oinarria):

- a) Onarpena eskatzeko eta esperientzia balioesteko inprimakiak, behar bezala beteak.
- b) Deialdian onartua izateko eskubideak ordaindu direla egiaztatzen duen agiria, behar bezala identifikatua.
- c) Hala badagokio, "D" motako gidabaimenaren fotokopia (formatu berriko gidabaimenen kasuan, gidabaimenaren bi aldeen fotokopia aurkeztu beharko da).
- d) Hala badagokio, Lanbide Gaitasunaren Egiaztagiraren (CAP) fotokopia.
- e) Hala badagokio, euskarako titulazio ofizialaren fotokopia.
- f) Gizarte Segurantzak emandako egiaztagiriak (Lan Bizitza) eta/edo aurreko atalean eskatutako esperientzia egiaztatuko duten enpresa-ziurtagiriak.
- g) Eskatutako Lanbide Heziketako titulazioaren fotokopia konpultsatua.

**PRIBATUTASUN POLITIKA**

Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak (aurrerantzean LOPD legea) xedatutakoaren arabera, jakinarazi nahi dizugu inprimaki honen bidez ematen dituzun datu pertsonalak eta dagokion hautaketa-prozesuan parte hartzean ematen dituzunak "Giza Baliabideak" izeneko fitxategi batean sartuko direla. Fitxategia DONOSTIAKO TRANBIA KONPAINIA, PSAren titulartasunpekoa izango da, Datuen Babeserako Espainiako Agentzian behar bezala inskribatuta egongo da, eta deialdian eta hautaketa-prozesu(et)an hautagai-izangai gisa izango duzun parte-hartzea kudeatzeko eta, hala badagokio, lan-politsetan sartzeko kudeaketak egiteko erabiliko da.

Inprimaki honetan eskatutako datu pertsonalei buruzko informazioa nahitaez eman beharko da, eta datu horiek eman ezean edo oker emanez gero, DONOSTIAKO TRANBIA KONPAINIA, PSAk ezin izango du zure eskaera kudeatu.

Emandako datu pertsonalen inguruan aldaketaren bat egiten bada, datuen titularrak horren berri eman beharko dio fitxategiaren arduradunari, eta, nolahi ere, une bakoitzean ematen diren datuen egiazkotasunaren eta zehaztasunaren erantzule izango da datuen titularra. Hirugarren baten datuak ematen badira, interesdunak aitortu beharko du datu horien titularren baimena duela datu horiek jakinarazteko.

Jakinarazten dizugu datuak eskuratu, zuzendu, baliogabetu edo aurkaratzeko eskubideak baliatu nahi izanez gero idazki bat bidal dezakezula honako helbide honetara, LOPD legean aurreikusitako moduan eta baldintzetan: DONOSTIAKO TRANBIA KONPAINIA, PSA, Fernando Sasiain kalea, 7, 20015 – Donostia (Gipuzkoa).

Era berean, deialdian eta hautaketa-prozesu(et)an sartzeko inprimaki hau izenpetuta, onartu egiten dituzu deialdia eta hautaketa-prozesua arautzen dituzten Oinarriak, eta, horrenbestez, DONOSTIAKO TRANBIA KONPAINIA, PSARI baimena ematen diozu esanbidez zure datuak jakinarazteko edo lagatzeko, Oinarri horietan ezarritako baldintzetan argitara ematearen bidez (hau da, DONOSTIAKO TRANBIA KONPAINIA, PSAren webgunean eta haren bulegoetako iragarki-taulan zerrendak eta emaitzak argitaratzearen bidez).

Zure egoera pertsonal zehatzari lotutako arrazoi sendo eta legitimoengatik zure datuak argitaratzerik nahi ez baduzu, DONOSTIAKO TRANBIA KONPAINIA, PSARI jakinarazi beharko diozu, Hautaketa Batzordeak zure kasua aztertu eta balioetsi dezan, eta dagokion erabakia har dezan.